

## KOMUNA DEN HORI, BIOBOTEREA ETA BIOPOLITIKA

Alba Garmendia Castaños

Nick Estesen *Gure historia da etorkizuna* liburuan indigenen erresistentziaren kontakizun bat irakur daiteke, erresistentzia historikoena bezain beste XXI. mendeko protesta-mugimendua eta, bereziki, Dakota Access oliobidearen kontra antolatutakoarena. Antzerako erresistentzia-mugimenduak aztertu izan dituzten bi autore marxista dira Michael Hardt eta Antonio Negri, eta beraien teoriak Estesekin elkarrizketan jartzea proposatzen da hemen.

Hardten eta Negriren pentsamenduan oinarritukoak diren hiru kontzeptutan jarri da arreta testu honetan: komuna den horretan, bioboterean eta biopolitikan.<sup>1</sup> Horiek azaltzearekin batera, Estesen kontakizunarekin loturak proposatzen joango gara, kontzeptu horien garrantzia marxismoaren (Hardt eta Negri) zein indigenen (Estes) begirada konkretuetatik haratago joan daitekeela ikusten joan dadin irakurlea.

### KOMUNA EDO DENONA DENA

*Mende luzetan izan den bezala, gatazka hau lurrari buruzkoa da: nork lapurtu duen, nor den noren jabea eta nork aldarrikatu duen haren jabetza.*  
(Estes, 2019, 52 or.)

Datozen orrietan, lehenik eta behin, komuna edo denona dena zer den esango da, bere bi adieretan. Jarraian, komuna edo denona den horrek dituen bi ezaugarriak azalduko dira, beti ere Hardten eta Negriren teoriari jarraituz. Eta, azkenik, komuna dena jabetzaren kontzeptutik bereiziko da.

### Zer da komuna? Bi adiera

Zer da komuna edo denona dena? Hasteko, hemen ez gara elkarrekin bizi den komunitateaz ari “komuna” esaten dugunean. Komuna izan daiteke “ondasunak eta egitekoak partekatuz elkarrekin bizi den pertsona taldea” (Euskaltzaindiaren Hiztegia), baina komuna edo denona

---

<sup>1</sup> Hardten eta Negriren teoriaren sintesia egilearen doktorego tesitik informazioa jasoz eta egokituz egin da, batez ere. Informazio gehiagorako, kontsulta bedi tesia bera: Garmendia Castaños, A. (2021). *Multitudearen utopia Inperio distopikoaren ispilu. Michael Hardten eta Antonio Negriren Empire bildumaren analisia utopiei buruzko ikerketen ikuspegitik*. Donostia, UPV/EHU. <http://hdl.handle.net/10810/55227>

den<sup>2</sup> hori beste gauza bat da. Gehienetan, Lurrari eta baliabide naturalei erreferentzia egiteko erabiltzen da kontzeptua: denonak dira ura, eguzkia, airea eta lurra; guztiona da planeta.

“Guztiona” esaten denean, normalean, gizaki guztioi dagokigula ulertu ohi da. Hardten eta Negriren ekarpenak, adibidez, ontzat ematen du komuna edo denona den horrek gizaki guztioi egiten digula erreferentzia, alegia, gizaki guztion balioaren berdintasunean, unibertsaltasun humanista moduko batean hartzen dute oinarri:

[H]umanismo errenazentistak giza berdintasunaren, singularitasunaren eta komunitatearen, lankidetzaren eta multitudearen nozio iraultzailea hasi zuen, indarrez eta desiraz egin zuena burrunba, mundu osoan zehar horizontalki hedatuz, beste herri eta lurralde batzuen aurkikuntzek biziagotuta. (Hardt eta Negri, 2000, 76-77 or.)<sup>3</sup>

Beste modu batean esanda, Mendebaldeko tradizio filosofikoaren zordun dira Hardt eta Negri, eta balio desiragarri bat ikusten diote XV. mendetik aurrera sortzen hasi zen mugimenduari, gizatasunaren unibertsaltasuna aldarrikatzen zuelako. Dena den, argitu beharrekoa da ideia horiek ez darabiltzateela kolonialismoa justifikatzeko. Hardten eta Negriren ustez, orduko berdintasun eta unibertsaltasun ideia da laudagarria, ez, ordea, haren izenean edo aitzakian egin zirenak.

Bartolomé De las Casas enkomenda-buru espainiarraz diote, adibidez, inguruan zuen girotik aldentzeko gai izan zela, kolono espainiarrek egindako aberrazioen kontra amerindiarren gizatasuna azpimarratu zuelako. Bestalde, baina, amerindiarren eta europarren arteko berdintasuna potentziala baino ez zen harentzat, “natiboak azpigaratutako europar potentzialak” zirela ziola-eta (Hardt eta Negri, 2000, 116 or.). Hau da, De las Casasek gizatasunaren balio unibertsala ikusi zuela azpimarratzen dute Hardtek eta Negrik, baina baita unibertsaltasun horrek eredu ondo partikular bat zuela oinarri ere –europarra, alegia–, eta indigenen gizatasunaren balio ustez unibertsala aldarrikatzen zuela baldin eta kolonizatuek europarren balio partikularrak onartzen bazituzten.

Hasierarako ideiarda itzuliz, orduan, baliabide naturalak komunak badira, gizaki guztioi dagozkigula ulertu behar da, eta ezingo direla gutxi batzuen –kasu honetan, kolonoen– jabetzakoak izan. Hori litzateke komuna edo denona den adierarik ohikoena, baliabide naturalena. Hardtek eta Negrik bigarren zentzu bat ere gehitzen diote lehenengoari, ordea.

---

<sup>2</sup> “Komuna edo denona dena” itzuli zuen Hedoi Etxarte Morenok Michael Hardten eta Antonio Negriren “the common” kontzeptua, Hardti Argia aldizkarian egin zion elkarrizketan: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2391/mihael-hardt/inprimatu>.

<sup>3</sup> Hardten eta Negriren itzulpenak egilearenak dira. Testu originalak bibliografia-zerrendako erreferentzietan kontsulta daitezke.

Bereizketa horretan murgildu baino lehen, Estesen liburuan geldialdi txiki bat egitea proposatzen da, komuna den hori gizaki guztiona dela dioen ideia pixka bat erlatibizatzeke. Izan ere, Estesek natibo amerikarrek naturarekin duten harremana azaltzen duenean, suma daiteke komuna den hori gizatasunetik haratago doala.

Eskualde hau –gure aberria– He Sapa izeneko eremuaren parte da: Muino Beltzak, edo den guztiaren bihotza. He Sapa dugu lakota kosmosaren bihotz taupakaria, (...), non egin baikinen gizaki (...). Azkeneko izotz-aroan, glaziar erraldoiek moldatu zuten lurraldea. Izotza urtu ostean, (...) handik barrena ibiltzen ziren bufaloak, (...), ur bila. Bufaloek izarrei jarraitzen zieten, eta jendeak, berriz, bufaloei. Gure senideak ohoratzeke, bi izen hauek eman genizkien gure jendeari: ‘Pte Oyate’ (Bufalo Nazioa) eta ‘Wicahpi Oyate’ (Izar Nazioa). (...) Ingurune honetan, urak bizia du, eta ekiteko gaitasuna ere bai; likido gisa ibiltzen da ibaian gora eta behera; haren gasak hodeiak osatzen ditu, eta, izozten denean, lurra bera mugitzen du, bizirik baitago eta bizia ematen baitu. He Sapa da munduaren bihotza, eta Mni Sose, berriz, haren ahorta. Hori da lakotek eta indigenek mundu fisikoarekin duten harremana. (Estes, 2019, 31-32 or.)

Azpimarratu nahi den ideia da natura ez dela gizakiarena, ezta gizatasuna unibertsalki ulertzen bada ere. Natura eta gizakia maila berean dira munduaren parte, izarren, bufaloen eta pertsonen arteko harremanak erakusten duenez. Indigenak ez dira bufaloak edo izarrak *dituzten* jendea, “Bufalo Nazioa” eta “Izar Nazioa” dira, elkarren senide. Natura eta gizakia bat dira, beraz, sinbiosi moduko bat, eta ez bata (natura) bestearen (gizakia) jabetza.

Hardten eta Negriren proposamenari helduz atzera, esan behar da komuna edo denona dena ez dela soilik naturaz jasotzen dugun hori, eta eraikia ere badela. Gizakiak amankomunean sortzen eta partekatzen duena ere komuna da beraien ustez. Hala, Lurraz gain, “ideiak, jakintza, irudiak, kodeak, afektuak, harreman sozialak eta antzerakoak” ere komunak edo denonak dira (Hardt, 2010, 18 or.). Ura bezain beste da guztiona jakintza, belaunaldiz belaunaldi eta elkarri entzunez, kritikatu, ikasiz... osatzen delako, amankomunean. Bigarren adiera honetan, komuna edo denona dena espazio naturaletik sozialera aldatzen da.

## Bi ezaugarri: irisgarritasuna eta erabakimena

“Komuna den ondasuna (...) guztion artean eraiki, eduki, erabili eta banatu beharreko zerbait da”, diote Hardtek eta Negrik *Declaration* sasi-manifestuan (2012). Izan herriko plaza, izan airea, izan aurkikuntza zientifiko bat, komuna bada denontzat eskuragarri egon behar dela eta denon artean kudeatu behar dela diote Hardtek eta Negrik. Beste modu batean esanda, komuna dena irisgarria izan behar da denontzat, eta komuna den horrekiko erabakiak guztion artean hartu behar ditugu orduan.

Alde batetik, beraz, komuna den horrek denon eskura egon behar du. Hardten eta Negriren arabera, “komuna den hori partekatzen dugun hori dela esan liteke” (2017, 97 or.) eta, partekatzen dugun neurrian, guztiok dugu horretarako sarbidea. Lurra denona da, partekatu egiten dugulako, guztiok gaudelako planetan. Hala, bada, denona den horretara sarrera edukitzea funtsezkoa da zerbait komuna izan dadin.

Baina Hardten eta Negriren aipu originala luzeagoa da: “komuna den hori partekatzen dugun hori dela esan liteke *edo, hobeto esan, partekatzeko egitura sozial bat eta teknologia sozial bat da*” (2017, 97 or.). Horrek esan nahi du komuna den hori ez dela soilik partekatzen den baliabide bat; aitzitik, dena delakoa partekatzea posible izan dadin beharrezkoa den egitura ere bada komuna den hori. Beraz, partekatzen den horretaz haratago, komuna dena bermatzen duen egitura ere bada. Ura baliabide komuntzat hartzen badugu, Hardten eta Negriren teoriari jarraika, ur hori guztiongana irits dadin (“partekatu” dezagun) beharrezkoak diren egiturek ere komunak behar lukete.

Zer esan nahi du egiturak komunak izateak? Komuna den hori bermatzeko antolaketa beharrezkoa dela, hitz gutxitan esateko. Ez da nahikoa guztiona den horretara sarbidea edo irisgarritasuna beharrezkoa dela esatearekin, hori egiteko bidea ere ireki behar da. Azpiegitura egokiak eraiki behar dira uraren banaketa zuzena bermatzeko; egile-eskubideak berrikusi, jakintza demokratizatzeko; erabakiguneak zabaltu, inplikatuak parte-hartzeko... Eta, horretarako, erakundeak beharko dira, komuna den hori jasoko duen legedia, erabilera komuna zehaztuko duen kudeaketa-sistema eta abar (Hardt eta Negri, 2012); hots, antolaketa. Ez da nahikoa baliabideen irisgarritasuna denen eskura utzi eta haien kudeaketa guztien artean egin behar dela esate hutsarekin.

Beste alde batetik, beraz, komuna den horrek bigarren ezaugarri bat ere izan behar du: komuna den horren gaineko erabakimen-eskubidea guztiona dela aldarrikatzen dute Hardtek eta Negrik, eta praktikan jarri behar dela hori egikaritzeko bada. Erabakiak modu kolektiboan eta asanblea bidez hartzen ikasi behar dugula uste dute, ez dutelako ordezkartzaren eredian sinesten. Gizarte osoaren, gizateriaren “autogobernua, askatasuna eta demokrazia” dituzte helburu (2017, xvi), eta sinetsita daude komuna den horren gaineko erabakimena gizarteari zabaltzeko helburu horretarantz gerturatuko gintuzkeela.

---

Komuna den horren bi ezaugarriak ikus daitezke Estes en kontakizunean ere. Natibo amerikarrei erreserbetan bizitzen utzi izan zaie, eta nabarmen mugatu zaie komuna duten lurrrerako sarbidea. Are agerikoagoa da komuna den horrekiko erabakimenaren erauzteak. Beraien bizileku, sostengu, sinesmenen oinarri eta zentzu-emaile zen natura mugatu ez ezik, haren gainean har lezaketen ezin erabaki hartzeko aukerarik ere ez baitaukate. Estes en aipu honetan ikus daiteke ideia hori, adibidez:

Ez gara askeak. Ez dugu erabakirik hartzen. Gure erabakiak gure izenean hartzen dituzte; (...). Erreserbetan bizi garenon kasuan, gure izenean aukeratzen eta erabakitzen dute administrazio federalek, burokratek eta (...) gobernu tribal deritzenak. Erreserbarenak ez diren eremuetan bizi garenon kasuan, botere zuriaren eliteek kontrolatzen dituzte gure bizitzak. Gizarte-langile deritze, polizia, eskola-irakasle, eliza eta abar (...). (Estes, 2019, 216-217 or.)

Bestalde, ikusi besterik ez dago oliobidearen proiektua geldiarazteko proiektuan jasandako erantzuna. Komuna den urarekiko erabakimen-eskubidea aldarrikatu eta betearazteko eskatu

---

zenean jasotako erantzunak erakusten du hautsak harrotzen dituela gaiak, eta AEBen irizpidea baliabideak pribatizatzearen aldekoagoa dela, jabetzatik aldentzea eta komuna den horri erreparatzea baino.

---

Laburbilduz, komuna edo denona denak bi ezaugarri dituela diote Hardtek eta Negrik: guztion irisgarritasuna eta haren gaineko erabakimena bermatu behar ditu benetan komun izan dadin. Dena den, komuna den hori esku pribatu edo publikoetan egon da orain arte batez ere. Hardtek eta Negrik komuna den hori jabetzatik askatu eta gizarte osoaren eskura jarri nahi dute.

## Komuna dena ez da jabetza mota bat

Orain arte esandakoek pentsarazi dezakete jabetza mota berri bat dela komuna den hori. Jabetza pribatua norbanakoen esku badago eta jabetza publikoa, berriz, estatuen esku, orduan, komuna den hori gizaki guztion eskura dago. Beraz, komuna dena guztiona *da*, denon *jabetzakoa*. Ez da hori, ordea, Hardtek eta Negrik buruan duten komuna, jabetzaren kontzeptua bera gainditu nahi dute-eta.

Hobeto esanda, pribatua eta publikoa den horri argi egin behar zaiola uste dute, eta nozio batzuk bereizi behar direla horretarako. Hasteko, “pribatua den horren” baitan bi gauza nahasten direla diote: jabetza, eta norberaren eremu pribatua. “Pribatua den horrek subjektu sozialen eskubideak eta askatasunak hartzen dituela ulertu ohi da, baita jabetza pribaturako eskubidea ere” (Hardt eta Negri, 2004, 203-204 or.). Horren kontra, jabetza pribatuarekin nahasiko ez den pribatutasunaren kontzeptua errekeratzearen alde egiten dute. Norbanakoaren eremu pribatua errespetatzea gauza bat da; beste bat, eremu hori jabetza pribatuarekin nahastea.

---

Standing Rockeko kanpalekuaren berri ematen duen *Awake* dokumentalean ikus daiteke antzeko zerbait, indigena baten ahotsetik:

Hasieran, nire lana zen gure senide ez-natiboei protokolo digitala erakustea, hartan heztea eta ahalduntzea: noiz grabatu eta noiz ez, gurasoen baimenik gabe haurrak ez grabatzea, zeremonia ez grabatzea –une horiek sakratuak dira– eta baita zeremonian parte hartzea ere, grabatu aurretik. Zure izpiritua lotu, hor zergatik zauden jakiteko. Zeure burua hezi eta ahaldundu. Guri buruz ikasi. Zeure buruari buruz ikasi. Ikasi zergatik gauden guztiok batera eta zergatik eusten dion gure izpirituak. Hori partekatzea garrantzitsua zen. (1:13:18 - 1:14:00)

Jabetza pribaturik ez duen komunitate indigenak pribatutasunaren zentzu garbia duela ikusten da protokolo digitalaren azalpenean. Bide batez, komuna den horren zantzu batzuk ere nabariak dira: natiboen eta ez-natiboen ahaidetasuna, espirituaren batasuna, elkar ulertzeak eta partekatzeak dakarren balioa...

---

Bestetik, publikoa den horren baitan ere ikusten dituzte bereizi beharreko bi kontzeptu; hots, komunean kudeatzen dena eta estatuaren kontrolpean dagoena. Hardten eta Negriren ustez,

publikoa den hori ez da zertan estatuaren kontrolpean egon eta, alde horretatik, komuna den horren ideian oinarritutako publikotasuna aldarrikatzen dute. Beste modu batean esanda, ez dute estatuaren kontrolean eta ordezkarietan sinesten, bai, ordea, autogobernuan eta demokrazia absolutuan (hobeto esanda, demokrazia absolutura gehien gerturatzen den eredu).

Ordezkaririk gabeko zuzeneko demokrazian sinesten dute Hardten eta Negri. Eredu horren arabera, herritarrek asanblea bidez hartzen dute parte politikan, guztien parte-hartzean oinarritzen den sistema batean. Hori bai, onartzen dute demokrazia absolutu osoa lortzea ezinezkoa izango litzatekeela, eta hartara gehien gerturatzen den eredu bilatu behar litzatekeela.

Izan ere, Hardten eta Negriren ustez, ordezkarietako demokrazian dagoen bereizketa, ordezkari politikoena eta herritarrena, minimora murriztu behar da (2017, 239 or.). Agintarien eta aginduek jasotzen dituztenen arteko bereizketa da Hardten eta Negri gaitu nahi dutena, analogia oker batean oinarritzen dela uste dutelako.

Beraien ustez (2004, 329-330), giza gorputzaren eta gorputz sozialaren arteko analogia modernoak azaltzen du oraindik ere gaur egungo subiranotasunaren eta demokraziaren arteko harremana. Are, uste dute ordezkarietaren justifikazioa ere ikus daitekeela bertan, baita agintarien eta aginduek jasotzen dituztenen arteko bereizketa edota gobernuak erabakiak hartzeko duen eksklusibotasuna ere.

Thomas Hobbesen *Leviathan* (1651) lana erabiltzen dute ideia hori azaltzeko. Liburuaren azalean agertzen den irudiak erakusten duenez, Leviatan munstroaren gorputza gizartea egiten duen norbanako bakoitzak osatzen du, baina buru bakar batek gidatzen duen gorputza da. Funtsean, Hardten eta Negriren ideia nagusia da ordezkarietako demokraziak ere identifikazio bat aurreusoposatzen duela ordezkariaren (munstroaren burua) eta ordezkariaren (gorputza) artean.

Termino horietan ulertutako ordezkarietako, ordea, ez litzateke demokrazia absoluturako bidea. Hardten eta Negriren ustez gaurkoa baino gizarte desiragarriago horretako herritarrek singularak izango liratekeelako: hau da, elkarren artean desberdinak eta originalak eta, beraz, ordezkarietako. Herritar horiek ezingo lirateke gorputz sozial homogeenoa –eta, beraz, ordezkarietako– gisa ulertu. Hala, subiranotasuna –eta beronek, Modernitatez geroztik, estatua– behar omen dituen ordezkarietako ez litzateke bateragarria gizarte desiragarriago horrekin, ez lukeelako haren baitako desberdintasuna kontuan hartuko (nazioaren, klasearen, partiduaren... izenean homogeneizatuko luke gorputz sozial subiranoa) eta ez liokeelako bere burua gobernatzen utziko (erabakimena gobernuaren esku legoke eta gobernu, gobernatuetaatik bereizirik).

Ordezkarietako ereduaren ordezkari, “antihobbes erradikal bat” sortzera dei egiten dute (Casarino eta Negri, 2008, 131 or.): gobernariaren eta gobernatuek diren horien arteko aldea desegiterra; munstroaren buruaren eta gorputzaren bereizketa gaituztera.

---

Esan berri denaz hausnartzeko tarte bat hartzea proposatzen da oraingoan. Zer ekar dezake estatuaren kontrola desagiteak? Nola ordezkatzan da gaurko estatuak betetzen duen papera komuna den horretatik? Zer da komuna den horren ideian (eta ez estatuaren kontrolean) oinarritzen den publikotasuna?

Hardten eta Negriren apustua argia da: ordezkaritza politikorik gabe, gizarteak bere burua goberna dezakeela eta hala egin beharko lukeela uste dute, horrek irekiko lukeelako autogobernurako, demokraziarako eta askatasunerako benetako atea.

Jule Goikoetxea Mentxakaren kritikak dio (2021, 218 or.), berriz, halako proposamenak gauzatuz gero, praktikan, betiko gutxi batzuei baino ez geniekeela egingo mesede. Hain zuzen ere, Goikoetxearen ustez publikoa den horrek bermatu behar du, hain justu, komunitate jakin bakoitzak badituela autogobernurako baliabideak.

Autogobernatuko den eskola bat izateko beharrezkoa da unean uneko autoritate publikoak horretarako baliabideak ematea. Hala izan ezean, eskola horren balizko autogobernua norbanako pribatuen eta beraien baliabideen esku legoke, hots, permititu dezaketen horientzat irekiko litzateke eskola, eta ez litzateke unibertsaltasunik bermatuko. Esan gabe doa komuna den horren zentzua galduko lukeela Goikoetxeak deskribatzen duen hezkuntza-ereduak.

Galdera da: irudika ote dezakegu Hardten eta Negriren zentzuan komuna den –beraz unibertsala eta doakoa den– hezkuntza-eredu eta -komunitate bat ordezkaritza politikorik eta estatuaren esku-hartzerik gabe? Ematen ote du galdera erantzuteko pistarik Estesek deskribatutako indigenen komunitateak?

---

Hardten eta Negriren proposamenaren egingarritasuna edo desiragarritasuna gorabehera, eta hasierako ideia itzuliz, azpimarratu nahi den ideia da komuna den hori ez dela jabetza mota bat. Jabetza pribatutik eta publikotik desberdina da komuna edo denona dena, hain justu ere, denon parte-hartzearekin hartu behar direlako erabakiak haren gainean, denon artean kudeatu behar delako guztiok partekatzen dugun hori.

Estesen liburura begira jarrita, berriz, galdera bizikidetzaren inguruan sortzen da. Zer egin naturaren izaera komuna oinarri duen indigenen komunitatearekin eta jabetza pribatua eta baliabide naturalen ustiaketan oinarritzen den estatu amerikarrarekin?

## BIOBOTEREA ETA BIOPOLITIKA

Datozen orrietan, lehenengo, bioboterearen eta biopolitikaren kontzeptuak bereiziko dira eta, ondoren, bi ideietan sakonduko da: bioboterea diziplinarekin lotzen den kontzeptua da eta biopolitika, aldiz, subjektibitate alternatiboak sor ditzakeena. Behin horiek argituta, indarraren erabilera legitimoaz apunte bat gehituko zaio azalpenari, erresistentzia-mugimenduen eta indarraren erabileraren arteko eztabaidari argi pixka bat egiteko asmotan.

### Bioboterea vs biopolitika

Hardtek eta Negrik 1970etik aurrera sortzen eta hedatzen zihoan mundu-ordena berria azaldu nahi izan zuten 2000. urtean argitaratu zuten *Empire* liburuarekin. Mende berriaren ateetan, agerian jarri nahi izan zituzten gizarte garaikideen ezaugarri batzuk, batez ere, botereak nola funtzionatzen zuten eta nola hedatzen zen erakutsiz.

Liburua bezala, Inperio deitu zioten mundu-ordena berriari, eta ordena *biopolitiko*a dela esan zuten (2000, 22-41 or.): Inperioan bizitzak produzitzen dira, subjektibitateak erregulatzen dira bertan. Erabateko gerra egin omen zioten kolonoek indigenen *bizitzari*, dio Estesena aipua (123 or.). Hardten eta Negriren begietatik horrek zer esan nahi duen azalduko da datozen orrietan.

Hasteko, kontuan hartu behar da Hardtek eta Negrik, Michel Foucault jarraituz baina hartatik pixka bat bereiziz, “*bioboterea*” eta “*biopolitika*” bereizten dituztela. Bioboterea “*bizitzaren gaineko boterea*” da: bizitza kontrolatzeko eta diziplinatzeko boterea; biopolitika, aldiz, “*bizitzaren boterea*” da, “*eusteko[a]*” eta subjektibitatearen produkzio alternatiboa zehazteko[a]” (Hardt eta Negri, 2009, 57 or.). Hardten eta Negriren irakurketaren arabera, eta Foucaulten ideiarik segika, Modernitateak geroztik erabili da bioboterea biztanleria diziplinatzeko eta subjektibitateak sortzeko.

Badago Foucaulten ekarpenean hain argia ez den bereizketa bat, ordea: bioboterea subjektua diziplinatzeko eta kontrolatzeko erabiltzen bada, *biopolitika* kontrol horri ihes egin diezaiokeen gaitasuna dela uste dute Hardtek eta Negrik. Alegia, botere diziplinatzailerik ihes egiteko eta subjektibitate alternatiboak –eta desiragarriagoak– sortzeko potentziala du biopolitikak, bestelako bizimoduak sortzeko boterea da.

Foucaultek biobotere deitu zion biztanleria eta gorputzak menderatzeko eta diziplinatzeko estatu-botereari. Hardtek eta Negrik diotena da bizitzaren gaineko estatu-botere hori bizkarroia dela eta gizakiaren produkzio-gaitasuna bere egitetik bizi dela. Baina gizakiaren produkzio-gaitasuna beti egongo litzateke biobotereak bere mesedetarako kontrola dezakeen horren gainera. Hor legoke botere biopolitikoaren potentziala. Hardten eta Negriren ustez, bizimodu berri bat sortzeko gaitasuna –botere biopolitikoak– beti izango da estatu-kontrolarena –bioboterearena– baino handiagoa eta, batez ere, autonomoa.

Biopolitikaren nondik norakoak geroko utzita, bioboterearen nozioan murgilduko gara orain, bioboterearen baitan dagoelako, hain zuzen ere, mundu-ordena berriaren arrakasta-gakoetako bat.



## Bioboterea: ordena erreproduzitzen duten subjektibitateak

*[K]olonoek gerra erabatekoa egin zioten indigenen bizitzari. (Estes, 2019, 123 or.)*

Inperioaren edo mundu-ordena berriaren arrakasta ez datza antolamendu politiko berri bat indarrez inposatzean. Hardtek eta Negrik diotenez, Inperioak funtzionatzen du hiritar inperialak ere sortzen direlako, konturatu gabe mundu-ordena erreproduzitzen duten subjektuak sortzen direlako.

Horrek esan nahi du herritarrek barneratu egiten dutela gizartearen araua. Hardten eta Negriren hitzekin esateko, “subjektibitatea sortze-prozesu sozial etengabea da. Nagusiak lantegian garrasi egiten dizunean, edo eskolako zuzendariak korridorean garrasi egiten dizunean, subjektibitate bat sortzen da” (2000, 195 or.). Foucaultek esan bezala, subjektibitateak erakundeetan sortzen dira, fabriketan eta eskolan ez ezik, baita kartzelan edota familian ere. Portaera-arauak ikasten eta barneratzen dira halako lekuetan, konturatu gabe erreproduzitzeraino; hots, diziplinatu egiten dira subjektuak.

Hardtek eta Negrik gizarte garaikidera ekartzen dute Foucaulten kontzeptua: lehen espazio fisiko berezietan diziplinatzen zen subjektibitatea (familiak, eskolak, fabrikak... nork bere leku eta, beraz, eragin eremu, mugatuak zituen); Inperioan, ordea, desegin egin dira nonbait muga horiek. “Gaur egun”, diote Hardtek eta Negrik (2000, 196 or.), “erakundeen espazio mugatua definitzen zuten esparruak eraitsi egin dira; nagusiki erakundeen hormen barruan funtzionatu zuen logika orain eremu sozial osoan zabaldu da. Barne eta kanpo aldeak bereizezinak ari dira bihurtzen”. Honela ere azaltzen dute (2000, xv or.):

Inperioak, lurralde bat eta populazio bat kudeatzeaz gain, bizi den mundua bera sortzen du. Giza interakzioak arautzeaz gain, giza izaeraren gainean gobernatu nahi du zuzenean. Bizitza soziala arautzen du bere osotasunean, eta, hala, Inperioak bioboterearen forma paradigmatikoa hartzen du.

Gizarte modernoarekin konparatuz, hori litzateke alderik nabarmenetakoa: espazio konkretu bakoitzean modu jakin batean portatzera deituak izatetik, portaerak gizartearen eremu zabalean menderatzera aldatu dela gizartea, nahiz eta oharkabeko menderakuntza izan.

---

Estesen liburuan begi bistakoa egiten da bioboterearen diziplina eta han-hemenka topa daitezke orain arte azaldutakoaren adibideak.

Esate baterako, nazio indigenen eta AEBen arteko negoziazioetan ikus daitezke nola bultza zituzten lehenengoak bigarrenengo joko-arauen arabera antolatzen. Laramie Gotorlekuko Lehen Ituna (1851), adibidez, “Oceti Sakowin jendeen bost buruzagi gizonak sinatu zute[la]”

kontatzen du Estesek (2019, 127 or.), eta protesta egin zutela AEBek “buruzagi nagusi’ bat hautatzeko” eskatu zitelako, “eta hark ordezkari zitzala nazio guztiak itunei buruzko negoziatioetan”. Estesek dioen moduan, ordea, “nazio indigenek (...) bestelako egitura politiko bat zuten, deszentralizatua, eta, haren arabera, dibisio bakoitzak aukera zitzakeen bere ordezkariak. Hala, estatubatuarren konfigurazioa irain bat zen dibisio politiko bakoitzak aurrez izandako autonomiarentzat” (idem). Estesek iraintzan duena, bioboterearen erabileraren kasu argia da: nazio indigenen antolamendua funtzionamendu estatubatuarreara ekartzeko bide bat izan zen AEBen eskaria.

Bizitzeko modu zuzen bakarra dagoela eta modu alternatiboak desegin egin behar direla ere behin eta berriro ikusten da liburuan: ekoizle-indigenak beraien lurretatik bereiztean bizimodu batekin amaitu zen, euren sostengua zen ehiza, bilketa eta ereitea aldarazi zizkietelako (Estes, 2019, 123 or.); dantza, zeremonia eta ohitura indigenak mantentzea arau-haustetzat hartzen zen 1883ko Indiar Arau-Hausteen epaitegiaren arabera eta 1935era arte (idem, 151-152 or.); ibaiaren uholdeak aitzakia hartuta, indigenak hiritik aterarazi zituzten eta ingurua gentrifikatu zuten, indigenak kanporatuz, desjabetuz eta suntsituz (idem, 229 or.); haur indigenak eskola amerikarretara eraman zituzten, AEBetako hiritar bihur zitezen (idem, 219 or.)... Lehen ere esan denez, “kolonoek gerra erabatekoa egin zioten *indigenen bizitzari*” (idem, 123 or.), onartutako bizimodu bakarra amerikarra zela erakutsi zitzaielako behin eta berri.

## Biopolitika, subjektibitate alternatiboak sortzeko potentziala

*Amaraun baten gisan, oliobide berriak agertzen ari dira isilka kontinentean zehar abiadura beldurgarrian; baina, prozesu horretan, oliobideek esplotatuen eta desjabetuen komunitate askotarikoak ere elkar lotzen eta akuilatzen dituzte. (Estes, 2019, 300 or.)*

Hasieran esan bezala, –Hardten eta Negriren teorian, behintzat– biopolitika da “bizitzaren gaineko boterea”, “subjektibitatearen produkzio alternatiboa” (2009, 57 or.). Beraz, eta Inperioak bioboterea mugagabeki hedatzea badirudi ere, Hardten eta Negriren ustez beti dago bizimodu alternatiboak eraikitzeke zirikituren bat, potentzialki, gutxienez. Estesek aipatu dioen bezala, oliobideak hedatzen ari dira, bai, baina bazterrean utzitako komunitateak elkarri lotzeko aitzakia ere bihurtu dira.

Hardten eta Negriren teoriari jarraituz gero, esan behar genuke hori gertatzen dela sortzeko gaitasuna –bizimodu berriak sortzekoa, produzitzekoa– ezein boterek bere egin baino lehenagokoa dela. Erresistentzia boterearen aurretik dagoela esanez azaltzen dute hori.

Adibide batekin ikusteko, Dakota Access oliobidearen kontra antolatutako mugimendua ez da oliobidearen kontrako erreakzioz sortu soilik. Sortu da gizakiak –kasu honetan, kanpamendua

antolatu eta bertan bizi zirenak– botereak bere egin ezin duen soberakin bat duelako. Standing Rockeko kanpalekuan ikusi zen estatu-indarkeria gorabehera (une hartako protesta mugimenduen kontrakoa eta indigenen kontrako bioboterearen erabilera historikoa gorabehera) bazela indar bat botereak bere egin ezin zuena. Indar hori da, Hardten eta Negriren teoriarik, biopolitikaren potentziala, bizimodu alternatiboak sortzekoa. Beste hitz batzuekin esateko, biobotereak bere egin ezin duen boterea da eta, are, bioboterea bera iraul dezakeen potentziala.

Egin dezagun parentesi bat historian mende pare bat atzera eginez, XIX. mendera eta gainbalioaren teoria marxistara. Marxismoaren arabera, langileak sortzen duen balio gehigarria da gainbalioa. Langilearen soldata langileak berak sortzen duen balioa baino txikiagoa da, hau da, langileak sortzen duen balioa baino gutxiago kobratzen du. Gainbalioa deitzen zaio, hain justu, langileari ordaintzen ez zaion eta kapitalaren jabeak bereganatzen duen gehigarriari.

Hardten eta Negriren ustez, ordea, gizakiak produzi dezakeena beti izango da biobotereak bere mesedetarako erabil dezakeena baino handiagoa. Zentzu horretan, jabe kapitalistak gainbalioaren bidez irabaz dezakeena baino haratago doa beti biopolitikaren potentziala. Hardtek eta Negri diotenez, orduan, langilea gai da kapitalistak bereganatzen duen gainbalioa baino gehiago sortzeko. Irakurketa horren arabera, biopolitika gainbalioaren kontrako zerbitu da kasik, haren ifrentzua: kapitalistaren irabazia ez, baizik eta hark bere egin ezin duen langilearen indarra.

Marxismo klasikotik Hardten eta Negriren irakurketa garaikidera etorritik atzera, esan beharko genuke langilearen indar soberakin hori, kapitalistaren irabazi izan ezin daitekeena dela biopolitikaren potentziala ere. Gizakiak duen indar bat, bioboterea iraultzeko eta bizimodu berriak sortzeko.

Azken batean, Hardtek eta Negri mundu-ordenaren funtzionamendua eta bioboterearen eragina azaltzen dutenean, Karl Marxek lanaren eta esplotazioaren logika azaltzerakoan egin zuen hori bera egin nahi dute. Kapitalak esplotatuko langilearen teoriak, kapitalismoaren irakurketa egiteaz gain, langile-klaseak sortuko zuen mundua ere erakutsi nahi zuen. Bada,

orain, era berean, gure gerra-egoera orokorra eta beraren garapena ulertzen hasi behar dugu, erresistentzia-mugimendu sozialen eta politikoen genealogia ikertuz. Horrek gure munduaren ikuspegi berri batera eramango gaitu, baita mundu berri bat sortzeko gai diren subjektibitateak ulertzera ere. (Hardt eta Negri, 2004, 65 or.)

Erresistentzia boterearen aurretik dagoela esatean subjektibitate berri horien potentziala biobotereaz haratago doala erakutsi nahi dute Hardtek eta Negri. Hau da, bioboterea eta biopolitika ez dira krisi etengabearen egotera kondenatutako bi indar dialektiko, eta boterearen aurretik dagoen erresistentziak, subjektibitate berriak sortzeko potentzialak, ez du zertan oposizio-jarrera izatera mugatu. Are gehiago, “erresistentziak alternatibara pasatzeko gai izan behar dugu, eta onartu behar dugu askapen-mugimenduek autonomia lor dezaketela” (Hardt eta Negri, 2009, 102 or.). Gauzak horrela, Hardten eta Negriren ustez, behintzat, bioboterearen

potentziala eraldatzailea izan daiteke guztiz, ez soilik boterearen gehiegikeriei erantzuteko erresistentzia puntual bat.

### Indarraren erabilera legitimoaz

Subjektibitate berriak sortzea ez da erraza izaten, ordea. Biobotereak eraikitako subjektibitateak deseraikitzea, auzitan jartzea, bizimodu alternatiboak sortzea eta horiek mantentzea ez da prozesu baketsua izaten, Santing Rockeko kanpamenduaren historiak erakusten duenez. Hori dela eta, subjektibitate berriak sortzeko bidean indarraren erabilera aldarrikatzen dute Hardtek eta Negrik, ez, ordea, biobotereak ezartzen duen indarkeria berbera.

Zentzu horretan, indarraren erabilera bikoitza aldarrikatzen dute: ordena iraultzeko, bata, bizimodu berriak sortzeko, bestea.

Bai, defentsarako, gure armek indarkeria-moduei aurre egin behar diete — bai gerretako ‘makroindarkeriari’, bai finantzen, pobreziaren, arrazismoen, genero-zapalkuntzen eta ingurumen-degradazioaren ‘mikroindarkeriari’. Geure buruak babestu eta erasotzaileak armagabetu behar ditugu. Baina, barrura begira, gure armek autonomia eraikitzeko ere balio behar dute, bizimodu berriak asmatzeko eta harreman sozial berriak sortzeko. (2017, 270 or.)

Izan ere, Hardtek eta Negrik desiratzen duten gizartea –biopolitikaren subjektibitate alternatiboena– ez da berez sortzen, nahi gabe edo ezerezetik, prozesu baketsu eta natural baten ondorioz-edo. Hardtek eta Negrik indarraren eta boterearen erabilera beharrezkoa dela uste dute, baita gizarterik desiragarrienean eta hura sortzeko bidean ere.

2014ko Kobaneko setioa (Siria) aipatzen dute indarraren edo boterearen erabilera bikoitza adibide batekin azaltzeko. Beraien ustez (Hardt eta Negri, 2017, 271 or.), armak eta bonbak behar izan zituen mugimendu kurduak Estatu Islamikoaren erasoetatik babesteko, baina, horretaz gain eta barne-antolaketari begira, antolaketa-forma berriak asmatu zituztela uste dute Hardtek eta Negrik. Gobernantza-kontseiluak sortu izana eta postu bakoitzeko bina ordezkari izatea, bata emakumezkoa eta bestea gizonezkoa, azpimarratzen dute.

Kasu horretan ere, kaosaren eta indarkeriaren muturreko kasu horretan ere, benetako boterea komunitateak antzinako gizarte-ordena aldatzeko eta bizimodu demokratiko berriak sortzeko duen gaitasuna da. Kasu horietan, subjektibitatea sortzea ez da kontzientziazio-kontua soilik, sedimentu ontologiko moduko bat ere bada, izaki soziala geologikoki geruzaz geruza eraikitzen duen sedimentua. (2017, 271 or.)

Subjektibitate berriak sortzen dituzten arma berri horiek lirateke iraultza egiten lagunduko luketenak, eta gizarte ideala eratzea zein mantentzea gatazkatsua izango litzatekeela erakutsiko luketenak. Hau da, ordena zaharra iraultzeko ez ezik, berria sortzeko ere behar dira indarra eta boterea, bizimodu eta harreman berriak sortzeko eta iraunarazteko.

Idea horietan oinarrituz, hiru irizpide zehazten dituzte Hardtek eta Negrik indarraren erabilerari dagokionez (2004, 342-345 or.): indarraren erabilerak politikaren menpe egon behar du, defentsarako soilik erabil daiteke eta demokratikoki antolatu behar da. Hau da, erabaki militarrek ez dira beren kabuz justifikatzen eta denen artean hartutako erabakien arabera jokatu

behar da gudu-zelaian ere. Beraz, eta indarkeriak indarkeriagatik zentzurik ez duenez gero, defentsarako soilik erabil daitekeela diote Hardtek eta Negrik. Horren barruan sartuko litzateke bidezkoa ez den ordena baten kontrako erresistentzia edo autoritateari kontra egitekoa. Azkenik, ordea, indarkeriaren antolaketak berak ere demokratikoa izan behar du. Hots, gerra garaian ere ez lirateke eten behar demokrazia eta askatasuna.

---

Historialari askok eztabaidatu dute galdera honen inguruan: ea Oceti Sakowin jendeek eskubidea zuten beren burua defendatzeko, indar armatuen bidez; baina galdera hori ez dugu egingo hemen. Hau da egia hutsa: nazio indigenek, nazio orok bezala, eskubidea dutela beren burua defendatzeko, eta herri batek bere burua defendatzeko hautatzen duen modua ezin da argi eta garbi sailkatu 'ondo' eta 'gaizki' kategorietan. Biziraupena lortzea, edozein baliabide erabilita, erresistentzia-ekintza bat da. (Estes, 2019, 124-125 or.)

Estesek galderari ematen dion erantzuna<sup>4</sup> ez da bete-betean Hardtek eta Negrik emango lioketena, baina galdera egin egiten du: ba ote zuten eskubiderik indigenek indarkeria erabiliz beren burua defendatzeko?

Hardten eta Negriren erantzuna, Estesena bezala, baiezkoa litzateke, baina ez baldintzarik gabekoa. Beraien begiradatik, nazio indigenek ez lukete euren burua defendatzeko eskubidea izango *nazio bat direlako*, ezta *biziraupena edozein preziotan bermatzeko* ere. Hardten eta Negriren teoriari jarraituz, Oceti Sakowin jendeek indarkeria erabili ahalko lukete baldin eta irizpideak errespetatuko balitu. Funtsean, printzipio demokratikoen kontra joango ez balitz eta, erresistentzia egiteaz gain, subjektibitate berriak sortzeko/mantentzeko ere erabiliko balitz, Kobaneko setioaren adibidean bezala. Beste modu batean esanda, AEBen eskutik jasan duten indarkeria (ikus bedi, besteak beste, Estes, 2019, 76-84, 160-161, 296-298) berbera erabiliko ez balute.

---

Indarraren erabileraren legitimitateaz apunte hori egin aurretik, bioboterearen eta biopolitikaren arteko aldea azaldu da. Lehenengoa litzateke ordena erreproduzitzen duten subjektuak sortzen dituen eta bigarrena, aldiz, subjektibitate alternatiboak sor ditzakeena.

Komuna den horren kontzeptua azaltzerakoan, komunitate indigenaren eta estatu amerikarraren arteko bizikidetzaz galdeginez itxi da atala. Bioboterearen eta biopolitikaren kontzeptuak ulertuta, bi erantzun eman dakizkioke galderari, indigenen eta amerikarren arteko konfrontazioa eskatzen dutenak biak ere: edo indigenen bizimodua galtzen da hiritar amerikar

---

<sup>4</sup> Aipatu beharrekoa da, dena den, Standing Rockeko kanpalekuan erresistentzia-modu ez-bortitzak irakatsi zizkietela elkarri (Estes, 2019, 88 or.) eta halako erresistentzia (ez-bortitza) erabili zutelako protestariak *Awake* filmean ere ikusten denez.

eredugarri bilakatzen direlako, edo subjektibitate indigenak biziraute du, estatu amerikarrari erresistentzia eginez ez ezik, natibo amerikarren bizimoduak, hizkuntzak, ohiturak, kulturak, nazioak... azken finean, komunitateak, *bizirik* jarraitzen duelako. Oraingoan egiten den galdera da, orduan, zer esan nahi ote duen komunitate bat –kultura, bizimodu, nazio, hizkuntza... bat– *bizirik* egoteak.

## BIBLIOGRAFIA

Estes, N. (2019). *Gure historia da etorkizuna. Standing Rock vs Dakota Access oliobidea, eta indigenen erresistentziaren tradizio luzea*. Iruñea, Katrakak.

Casarino, C., & Negri, A. (2008). *In Praise of the Common. A Conversation on Philosophy and Politics*. University of Minnesota Press.

Hardt, M. (2010). Two Faces of Apocalypse: A Letter from Copenhagen. *Polygraph*, 22, 265–274.

Hardt, M. (2013, azaroak 17). Subjektibitate iraultzaileak ekoizten dituzten artelanak izan behar ditugu helburu (H. Etxarte Moreno) [Elkarrizketa]. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2391/mihael-hardt>.

Hardt, M., & Negri, A. (2000). *Empire*. Harvard University Press.

Hardt, M., & Negri, A. (2004). *Multitude. War and Democracy in the Age of Empire*. The Penguin Press.

Hardt, M., & Negri, A. (2009). *Commonwealth*. Belknap Press of Harvard University Press.

Hardt, M., & Negri, A. (2012). *Declaration*. Argo-Navis.

Hardt, M., & Negri, A. (2017). *Assembly*. Oxford University Press.

Goikoetxea, J. eta Noguera, A. (2021). *Estallidos. Revueltas, clase, identidad y cambio político*. Manresa, Bellaterra.

Ptesán Hunká, F. et. al. (2017). *Awake. A dream from Standing Rock*. <https://vimeo.com/213791250>